

2010
txostena



BIZKAIKO
OSASUN
MENTALEKO
SAREA

BOMSeko 2010eko jardueraren memoria gurezat BOMSeko langileek egindako jarduerak ezagutarazteko beste aukera bat da.

Gure erakundea, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak sortua eta 2010eko martxoaren 22an EHAAn argitaratua, Bermeo, Zaldibar, Zamudioko ospitaleak eta Bizkaiko ospitalez kanpoko osasun mentala izeneko erakundeen praktika onak batzeko eta gehitzeko asmo eta helburuarekin jaio zen, egiturak eta prozesuak batuz, komunitatearen atentzioaren ereduari emaitza bikainak lortzeko asmoz.

Asistentziaren ikuspuntutik, gure ekintzak, batez ere, ondorengoa lortzera bideratuta egon dira:

- Ospitaleetako eremua berrantolatzea, lurraldearentzat zerbitzu-zorro homogeneoa ezarri.
- Paziente psikiatrikoaren desinstituzionalizazioa bultzatzea eremu sozio-sanitarioko erakundeekiko akordioen bitartez, tutoretzapeko pisuetarako eta egoitza txikietarako plazak gehituz.
- Eguneko ospitaleetako plazak gehitzea eta tratamendu asertibo komunitarioko (TAK) bitartekoak Bizkaiko lurralde osoa zabaltzea.
- Halaber, gaixotasun mental arruntaren atentzioko prozesuan hobekuntza-taldeak sortu dira, adibidez, "Lehen gertakarien taldea", BOMSeko langileek eta ospitale orokorretako akutuen unitateetako langileek parte hartzen duten taldea.
- Egitura fisikoa eta giza-baliabideen egituraren oinarriak jarri dira hurrengo ekitaldian "BNL-HN" (buru-nahaste larria-haurrak eta nerabeak) duten pazienteentzako programa intentsiboa "ezartzeko Bizkaiko osoari eskualdeko atentzioa emateko.

Maila asistentzialak batzeko estrategia honekin batera, politikak garatu dira ekonomian, giza-baliabideetan eta informazio-sistemen arloan prozesu asistentzial ezberdinei beharrezko dituzten baliabideak emateko.

Kalitatezko asistentzia ezinezkoa da langileek prestakuntza egokirik ez badute, beraz, gure zeregin nagusietako bat Etengabeko Prestakuntza Plana ezartzea izan da BOMSeko pertsonen iritzia kontuan hartu eta zereginen hobekuntzan oinarrituz.

Era berean, 2010ean Osasun Ministerioak BAME, BAPE eta BAEE-en prestakuntzarako "Irakaskuntza multiprofesionaleko unitatea" izateko kreditatu du BOMS.

Jakina, lan hau guztia eskertu nahi dut, ezinezkoa izango baitzen gure erakundean lan egiten duten pertsonen parte hartzea eta profesionaltasuna izan ez balitz. Maila asistentzial ezberdinak benetan batzeko oraindik lan handia egin behar dugun arren, ziur nago ezarritako oinarriekin eta gure langileen laguntza eta inplikazioarekin aurrera jarraituko duguna osasun mentaleko paziente eta senideentzako emaitza bikainak bilatzen.

Carlos Pereira Rodríguez
BOMSeko GERENTEA



BIZKAIKO
OSASUN
MENTALEKO
SAREA

2010EKO JARDUERA ASISTENTZIALA



OSPITALEETAKO UNITATEETAKO JARDUERA

UNITATEAK	ONARPENAK	BATEZ BEST EGON	OKUPAZIO-IND	ALTAK
Akutuak	757	15,52	88,9%	756
Azpiakutuak*	31	53,8	98%	35
Errehabilitazioa*	94	216	99%	104
Egoitza	13			66

* Ohe-kopurua aldakorra da, urtean zehar egiten den berrantolaketa dela eta.

OSPITALEETAKO PLAZEN BERRANTOLAKETA

UNITATEAK	2010eko urtarrila	abendua	ALDAKETA
Akutuak	41	41	-
Azpiakutuak	48	73	+25
Errehabilitazioa	92	87	-5
Egoitza	331	273	-58
Ohe-Kop. Guztira	512	474	-38

OSPITALIZAZIOAREN ORDEZKO AUKERETAKO JARDUERA

EGUNEKO OSPITALEAK	EGONALDIAK	TUTORETZAPEKO PISUAK	EGONALDIAK
Eguneko ospitaleak	92037	4	5813

TRATAMENDU ASERTIBO KOMUNITARIOA (T.A.K.)	PAZIENTE-KOP
(Taldea 1.)	25

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMA BEREZIA

ZENTRO HEZITZAILE TERAPEUTIKOA	PAZIENTE-KOP
Ikasturtea eta urteroko jarraipena	
12 urtera arteko taldea	10
12 urtetik 17 urtera bitartekoak	10

HELDUENTZAKO OSASUN MENTALEKO ZENTROETAKO JARDUERA

PSIKIATRIA OROKORREKO OSASUN MENTALEKO ZENTROAK

ZENTRO	LEHENAK	HURRENGOAK	PAZIENTEAK	ALTAK
Derioko OMZ	400	4.645	802	155
Erandioko OMZ	269	4.510	760	120
Ercillako OMZ	1.000	12.893	2.292	362
B. Etzaniz OMZ	1.199	20.913	3.602	523
J. Ajuriaguerra OMZ	1.063	21.445	3.471	406
Barakaldoko OMZ	922	15.574	2.976	385
GUZTIRA	3.654	79.980	13.903	1.951

PSIKIATRIA OROKORREKO ETA DROGAMENPEKOTASUNETAKO OSASUN MENTALEKO ZENTROAK

Uribeiko OMZ "Helduak"	1.258	26.858	3.178	465
Otxarkoagako OMZ	203	12.704	788	72
Sestaoko OMZ	375	15.392	1.181	231
Zallako OMZ	347	6.635	925	84
Santurtziko OMZ	663	16.073	1.870	73
Herribitarte OMZ	745	15.406	2.019	403
Ortuellako OMZ	655	16.940	1.771	182
Galdakaoko OMZ	488	8.020	1.404	145
Gernikako OMZ	429	13.519	1.345	78
Bermeoko OMZ	288	8.832	968	57
Basauriko OMZ	1.025	22.829	2.906	216
Durangoko OMZ	895	19.499	2.784	210
GUZTIRA	7.371	182.707	21.139	2.216

OSASUN MENTALEKO ZENTROAK- DROGAMENPEKOTASUNETAKO MONOGRAFIKOAK

Novia Salcedo Drog. U	295	15.838	908	27
J. Ajuriaguerra Drog. U	260	17.347	781	32
Barakaldoko Drog. U.	231	14.387	857	17
GUZTIRA	786	47.572	2.546	76



HAUR ETA GAZTEENTZAKO OSASUN MENTALEKO ZENTROAK

HAUR ETA GAZTEENTZAKO OSASUN MENTALEKO ZENTROAK

ZENTRO	LEHENAK	HURRENGOAK	PAZIENTEAK	ALTAK
Uribeko OMZ "Haur eta gazte"	488	5.890	874	196
Ercillako OMZ "Haur eta gazte"	615	9.147	1.138	266
Herribitarte "HGP"	382	6.734	964	190
Barakaldoko "Haur eta gazte"	267	3.712	584	81
Galdakaoko "HGP"	539	9.414	1.243	238
GUZTIRA	2291	34897	4803	971

DATO EKONOMIKOAK

GASTUAK

FUNTZIONAMENDUA

Farmaziako produktuak	9.238.609,30
Mat. Sanitarioa	994.637,50
Beste hornidura batzuk	262.291,04
Kanpoko beste gastu batzuk	1.477.833,63
Beste ustiapen-gastu batzuk	3.898.864,37
	2.604.982,76

PERTSONALA GASTUAK GUZTIRA

60.459.742,96
69.698.352,26

SARRERAK

PROGRAMA-KONTRATUAREN SARRERAK

Ospitaleratzea	70.081.660,04
Populazioaren estaldura	42.882.720,50
Ospitalizazioaren ordezkio aukerak- programak	13.259.477,00
Kalitatea	13.091.656,54
	847.806,00

BESTE SARRERA BATZUK SARRERAK GUZTIRA

141.695,75
70.223.355,95

USTIAPENAREN EMAITZA

525.003.69



GIZA-BALIABIDEAK

Pertsonal asistentziala

Medikuak/Psikiatrak	674
Psikologoak	132
Farmazialariak	39
Biologoak	3
Erizainak	2
Terapeuta okupazionalak	150
Gizarte-langileak	6
LTE	36
Erizaintzako laguntzaileak	1
Farmaziako laguntzaileak	302
	3

Azpitotala

Pertsonal ez asistentziala	674
Zuzendariak	252
Goi mailako tituludunak	6
Erdi mailako tituludunak	16
Administrazioko pertsonala	6
Zerbitzu orokorrak	68
Mantentze-lanetako langileak	16
Zelariak	12
Zerbitzuetako langileak	10
	118

Azpitotala

GUZTIRA	252
	926

IKERKUNTZA

Bizkaiko Osasun Mentaleko sareko (BOMS) ikerkuntza pazienteen diagnostikoa, tratamendua, pronostikoa eta errehabilitazioa hobetzera zuzenduta dago. Ikerkuntzaren proiektu nagusiak Ikerkuntza Sanitarioko Fondoak, Eusko Jaurilaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak ordaindu dituzte, Ikerkuntza Komisionatuko laguntzak ere izan dira eta BOMSek berak ere ordaindu ditu.

2010ean egindako jardueraz, honakoa aipa daiteke:

Neurokimikako Ikerkuntza Sailean garatutako proiektuak, paziente eskizofreniko eta bipolarrak markagailu genetiko, neurokimiko eta klinikoan bitartez azpitaldeetan zehazteko, eta depresioan eta Parkinson gaixotasunean diana terapeutiko berriak bilatzeko. Depresioa eta depresio tratagaitza jasaten duten pazienteei atentzio integratua emateko proiektuak, maila arteko koordinazioa eta hiperaktibitatearen nahastearen preskripzio farmakologikoa hobetzeko proiektuak, eta elikaduraren nahastea tratatzeko eta bizitza-kalitatea ebaluatzeko lan berritzailea.

Terapia asertibo Komunitarioaren kostua-eraginkortasunaren ebaluazioa.

Pazientei hitzordua ematean hobetzea

Aipagarria da langile batzuk CIBERSAM (Centro de Investigación Biomédica en Red de Salud Mental) bezalako sare batzuetan sartuta daudela, osasun mentalaren arloko aldizkarietako argitalpen-zuzendaritzan aritzen direla eta ezagutza zabalitzen dutela biltzarretako komunikazioetan eta bibliometrian eragina duten artikuluetan. Batzuek merezitako aitortza jaso dute nazio mailako sarien bitartez. 2010ean BIOEFekin (Ikerkuntza eta Berrikuntzako Euskal Agentzia) eta O+ Berri-rekin (Berrikuntza Sanitarioko Euskal Institutua) lan egin da.



PRESTAKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA

Langileen partaidetza sustatu du Osakidetza prestakuntza-jardueretan eta Osasun Mentaleko Sareko Urteroko Jardunaldiak antolatu ditu.

Sareko Prestakuntza Batzordea osatu da eta orain osatzen duten erakundeen EFQM aitortza izateak dakartzan helburu asistentzialak, lanaren gogobetetzearenak eta eraginkortasunarenak bateratu ditu berrikuntza eta kalitatearen ikuspegiarekin.

Era berean, honako arloetan Prestakuntza Espezializatu kreditatua eskaini du:

- Psikiatriako plaza bi urtean.
- Psikologia Klinikoa plaza 1 urtean.
- Osasun mentaleko erizaintzako 4 plaza urtean.

Lanbide anitzetako irakaskuntzako unitatea sortzeko eskaera aurkeztu da eta Ministerioaren oniritzia jaso du.

Langile batzuek unibertsitateko irakaskuntzan parte hartzen dute- Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko unibertsitatea- graduatu aurrekoa eta graduatu ondoko masterra eta beste gradu akademiko batzuk medikuntzan, Psikopatologia, Psikologia Klinikoa eta Drogamenpekotasunak.

Halaber, lankidetzak-hitzarmenak daude graduatu aurrekoaren eta graduatu ondokoaren praktikak egiteko unibertsitatea duten zentroetan.



Osakidetza

BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA
RED SALUD MENTAL DE BIZKAIA

Bizkaiko osasun mentaleko sareko **egoitza nagusiaren helbidea hauxe da: María Díaz de Haro, 58.48010 Bilbao.** Zentro honetan BOMSeko zuzendaritza nagusiaren bulegoak daude eta horiekin batera, Berrikuntza eta sistemetako zuzendariordetza, ekonomia eta pertsonaleko kudeaketako sail zentralizatuak.

Harremanetarako telefonoa: 94 470 51 95